

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3963

*AGINDUA, 2021eko ekainaren 25ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzaren Sailburuordetzaren Goi-kargudunaren Idazkari lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe uzten duena.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta sail honetako huts bat borondatezko izendapen bidez betetzeko deialdi publikoa egiten duen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko maiatzaren 13ko Aginduaren hirugarren oinarrian agindutakoari jarraituz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Bete gabe uztea da goi-kargudunaren idazkari lanpostu hau: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzaren Sailburuordetzakoa (520010 kodea eta 36. dotazioa).

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2021ko ekainaren 25a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,  
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.